

*Abenduaren 10-11n Madrilen Osasuna, Ingurugiroa eta Lana (SAT/OIL) Egitarauaren inguruko topaketak ospatu ziren. Bertan, orain arte jorratutako bidea aztertu ondoren, hemendik aurrerako pausoek nondik norakoak izan behar duten erabaki zen.*

## SAT/OIL EGITARAUA: Langilearen ingurugiro-arreta areagotzeko tresna

Maidier Etxaide\*

**S**AT/OIL Egitaraua Zientzia eta Teknikaren azaroko alean aurkeztu genuen, proiektuaren oinarria aditzera emanez. Enpresetan ingurugiro-egoera zein den jakiteko eta arazoei konponbidea bilatzen hasteko metodologia da funtsean Egitarau honek eskaintzen duena, sindikatu eta langileen laguntza oinarri duelarik. Gipuzkoako Itziazarreko Poligono Industrialean Egitarauaren atal bat burutu da (estatu-mailako proiektua baita hau), disolbatzaileen ingurukoa, hain zuzen ere.

### Suediako gizartea ekologistagoa

Aldi berean, Suedian ere bertako sindikatuak bultzatuta antzeko egitaraua burutu da, Volvo eta beste enpresa batzuetan. Emaizak, ordea, oso desberdinak izan dira bi tokiotan eta aitortu egin behar da Suedian askoz aurrera-

tuagoak daudela kontu hauetan. Arrazoa kontzientzia ekologikoa Suediako gizarteen oso sustraitua egotea da, salbuespenak salbu, ezin baita ahaztu Boliden enpresa suediarrek Doñana inguruan egin-dako aldrebeskeria.

Itziazarren landutako proposamenak langilegoaren ezagupen eta ohiturak areagotzeko bakarrik egin diren bitartean, Egitaraua aplikatu den Suediako enpresetan produktuetan aldaketa galantak proposatzen ari dira jada. Esaterako, disolbatzaileak erabiltzen dituzten Suediako enpresa ia gehienek (% 90 inguru) disolbatzaile-oinarria duten pinturak ur-oinarria duten pinturez ordezkatu dituzte. Areago oraindik, ur-oinarri horren glikol atalak langilearen osasunari kalte egin diezaiokkeen susmoa dagoenez, oinarri horren kaltegarritasuna iker-tzen ari dira eta horrek aldaketa gehiago ekar ditzake ondorioz.

### Ingurugiroari arreta gutxi

Aurrediagnotikoa lau enpresatan egin bada ere, SAT Egitaraua GKN (AIRE CARDAN), IRUDEX eta ANAYAK enpresetan burutu da. Hiru enpresa hauetan disolbatzaileak zein prozesutan erabil-

### Disolbatzaileak industrian\* erabiltzearen ondoriozko emisioak

Jarduera	Emisioen portzentaia
<b>Pinturen aplikazioa automobilen fabrikazioan</b>	<b>6,3</b>
<b>Pinturen aplikazioak beste industrietan</b>	<b>32,0</b>
<b>Metalen deskoipeztaketa</b>	<b>12,8</b>
Lehorreko garbiketa	4,1
Kautxuaren tratamendua	2,1
Farmazi produktuen fabrikazioa	4,5
Pintura eta tinten fabrikazioa	1,4
Itsasgarrien fabrikazioa	3,6
Inprenta	13,4
Koipeen eta olio jangarri eta ez-jangarrien erauzketa	4,3
Estaldura itsasgarria	10,4
Basoen kontserbazioa	5,1

\* Azpisektore hauen emisioak industria osoaren emisioen % 60 baizik ez dira.



tzen diren eta langileek horri buruz zer dakiten aztertu da. Arakatutako prozesuak hauexek dira: aukeraketa eta erosketa, metaketa, erabilera eta hondakinen tratamendua.

Azterketak eman dituen ondorioak berriz, ondokoak dira:

- Produktuak aukeratu eta erosten diren unean ez da, oro har,

ten da eta tratamendua ere bai, zapi zein paperez. Bestalde, pintaketarako kabinak dauzkaten arren, askotan ez dituzte behar bezala erabiltzen.

#### Langileen jarrera aldatuz

Erabilitako metodologiak, berez, enpresariaren partehartzea eskatzen ez zuen arren enpresariak lagundu egin dute kasu gehiene-

rrengo erabili dira. Emaitza eta lorpenak aztertzeko langileen ondorengo portaera aztertzea funtsezkoa izan da. Oro har, langileen produktuarekiko arreta areagotu egin dela ikusi da. Zalantzan dago, ordea, arreta hori ohituretan betirako sustraituta noraino geratu den. Hori aurrerago ikusatu beharreko puntu gisa geratu da.



ingurugiro-arriskua edo osasunean eragin dezaketen kaltea kontuan hartzen. Prezioa eta eraginkortasuna da gehien begiratzen dena produktua erosterakoan, eta neurri txikiagoan, hondakinaren tratamenduaren kostua. Produktua 200 litroko bidioetan erosten da, behar bezala etiketaturik, baina ondoren bidio txikitara pasatzen da, identifikazio-etiketa gorde gabe. Bestalde, gehienetan kanpoan estali gabe metatzen dira materialok.

- Disolbatzaileak bi prozesutan erabiltzen dira: garbiketan eta pintaketan. Garbiketara eskuz egiten da, GKNn salbu. Pintaketan disolbatzaileak diluitzeko eta azken orduko akatsak zuzentzeko erabiltzen dira. Bi kasuetan, dosifikazioa eskuz egi-

tan, laguntza horrek lana erraztu egin duelarik. Lau sindikatuk batera —CCOO, UGT, ELA eta LABek— parte hartu izana eta elkarlanean aritu izana ere funtsezkoa izan da Egitaraua egoki burutzeko, pluraltasun horri esker era desberdinez ikusi baita lan hau sektore guztietatik.

Egitarauaren baitan hezkuntzak eta sentsibilizazioak izan dute lekuri garrantzizkoena, langileen jarrera aldatzea izan baita helburu nagusia. Bada, hezkuntza-ikastaro bat eskaintzeaz gain lau material baliatu ditu Egitarauak fase hau osatzeko: triptikoa, aldizkari espezializatua, CD-ROMa eta bideoa. Metodo eta material hauen emaitzak desberdinak izan dira baliagarritasunaren ikuspuntutik: ikastaro eta triptikoekin izandako emaitza onak izan diren bitartean, beste materialak hutsaren hu-

Aurrediagostikoa Itziarko lau enpresatan egin bada ere, hirutan baino ez da burutu SAT Egitaraua.

SAT/OIL Egitarauaren lehen fase honek fruituak eman ditu. Etor-kizunari begira, beste hezkuntza-ikastaro bat antolatzea erabaki da, langileari produktu bakoitzari buruzko informazio sakonagoa eskaintzeko eta ordezko produktu eta prozesuen berri emateko. Azkenburuko helburua enpresariekin batera eztabaida-mahaiak antolatzea eta aldaketak martxan jartzeko proposamen eta epeak erabakitzea litzateke.



\* HAIZEA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea.